

“Barrikada batean, harri-zokorren erdian
Odol errudenez zikin eta odol aratzez garbi,
Hamabi urteko haurra harrapatu dute gizonen
artean.

—Hauetakoa al haiz hi?—. Haurrak: Halakoak gara.

—Ongi da, dio ofizialak, fusilatu eginen haugu.

Hago hire txandaren zain—. Tximisten distira,

Eta lur jotzen dute bere lagun guztiak harresian.

Hala dio ofizialari: Utz nazazu amarenera joaten,

Erloju hau itzuli nahi nioke.

—Ihes egin nahi al duk? —Itzuliko naiz. —

Gaizkileok

Beldurra dute. Non bizi haiz? —Iturri ondoan.

Eta itzuli eginen naiz, kapitain jauna.

—Hoa ba, arraioa!—. Badoa haurra. —Jukutriaren
zabarra!

Eta soldaduek barre egiten zuten ofizialekin,

Eta hil-hurrenek barre honi marrua zioten gehitzen;

Baina algarak isildu egin ziren ustekabeen

Haurra azaldu zelarik ostera, zurbil,

Viala bat bezain harro etorriarik harresira

Eta non dien esaten: Hementxe nauzue.

Herio ergela lotsatu egin zen, ofizialak bizia laga
zion.

Haurra, nik ez dakit, urakanak jotzen duenean

ongia, gaizkia, heroiak, lapurrak, dena nahasteko,

Zerk zintuen borrokara bultzatu, baina nik diot

Zure arima ezjakina ezin gorenagoko arima dela.

Leial eta presturik, zuk, osinaren beltzanean,

Bi pauso, bata amagana eta bestea heriogana;

Haurrak xalotasuna, gizonak arrangurak,

Eta zu ez zara eginarazi dizutenaren erantzule;

Baina hain da haurra fierra eta bulartsua

Non ihesa, bizia, egunsentia, udaberria, jolasak

baino

Lagunak hil diren harresiaren ilunpea duen nahiago.

Aintzak pot zuri bekokian, o, zu, gazteetan gazte!

Bihotzeko lagun, Grezia zaharrean, Estesikorok

Argos hiriko atearen zaindari jarriko zintuzkeen;

Zinegirok esanen: hi eta biok berdinak gaituk!

Eta efebo ederrenen lerroan zintuzten hartuko

Tirtek Mesanon eta Eskilok Tebasen.

Brontzeko diskoetan zizelkatuko zen zure izena;

Eta inoiz zeru oskarbi baten azpian

Sahatsak gerizpetuko putzutik hurbil pasatzean,

Bufalo hatsantuak edan behar duten pegarra

Lepoan daraman neska gazteari burua itzularazi

Eta zuri begira geldituko zatekeen luzaz, gogoetan.”

Mendeen Legenda, 1. saila, XIII, 1

Barrikada batean

Olerki hau, lehenengo zatian, Victor Hugoren ospetsuenetakoa da. Barrikada bat defendatzen ari diren komunarien alde dagoen mutikoaren historia da. Versalleseko gudataldeen komandanteak barkatu egiten dio, eta hau ereduzko gertaldia bihurtzen da. Berak beti pentsatzen du errepresioa, den motakoa dela ere, ez dela itxua nahitaez eta gazte errebeldeak ez direla beti gizatxarrak. Horrela ikusita, erasoaren aurretik txukun txukun dagoen barrikadaren irudi jatorrarekin osatzen du olerkia.

Olerkiaren bukaeran hain gutxigarria ez den interpretazio bat proposatzen du. Ekintza on bat egiten ari dela pentsatzen duen ofizialak ez du fabula honen benetako moralitatea ulertu, eta olerkiak hori azaltzen du. Hiltzea erabaki duen mutikoa pertsonaia epikoa da, antzinateko heroiaren baliokide modernoa. Pariseko Komunarekiko Victor Hugoren jarrera ez da, olerki honetan, lege-hausteez balantza mantentzera mugatzen. Versallesekoek eta komunariak berezko dituzten legez kanpoko jardueren gainetik, ekintza heroikoak, eskuzabalak eta ereduzkoak ere badaude. Balantza, orduan, gizakiaren onena eta bere historia eta kulturako nobleena ordezkatzeko duten ahulenen aldera okertzen da.



1871, Parisko Komuna. San Sebastian kalean
barrikada. ©Col.Viollet

1873



1873, Victor Hugo, E.
Carjaten eskutik.
MVH©PMVP